



## Altza

# Arratsalde galaktikoena

Larunbat arratsaldean, hilak 5, XXIII. Altzako Areto Futbol Txapelketako finalak jokatuko dira kiroldegian. Lehenik, Kopako finala jokatuko da eta ondoren, Ligakoa.

**T**xapelketa urrian hasi zenetik, 100dik gora partidak jokatuta dira. Larunbat honetan, aurtengo ekitaldiko

azken bi neurketak jokatuko dira: Kopako eta Ligako finalak. Ventanas Urumea eta Izargorri taldeek jokatuko dute

Kopako finala 17:30ean. Ventanas Urumea taldeko jokalar gehienak Bidebieta eta Trintxerpekoak dira, eta Izargorrikoak, Trintxerpekoak.

Ligako finalari dagokionez, Bar Monchi eta Bar Restaurante Lantxas izango dira aurrez aurre. Bar Monchikoek iaz Liga irabazi zuten, beraz, bigarren urtez jarraian trofeorik handiena lortzeko asmoz zelairatuko dira. Bar Monchi talde beteteranoena da, txapelketa sortu zenetik, urtero parte hartu izan baitu. Joan den asteburuan, pastak jaten eta suspergarri bat edaten harrapatu genituen jokalaria aldagetan, finalerdiak irabazi eta gero. Akaso edabe magiko horren eraginez edo, finala aise irabaziko dutela ziurtatu zигuten. Lantxaseko presidente Jose Mari Aguadori final han-

diaren aurreko egunak zer moduz pasatzen ari den galdetu diogu, eta ilusioz gainezka dabiltzala esan digu. Ez da gutxiagorako. Izan ere, lehen aldiz jokatuko dute finala. Hala ere, finalerdietako sustoa oraindik ez zaiola joan aitortu digu Jose Marik: "3-0 irabazten ari ginen, eta azkenean 3-3 bukatu zen partida. Eskerriak joaneko partida irabazi genuela, bestela..."

## Dantza eta txaranga

Kiroldegian kirol ikuskizunaz gain, bestelakorik ere izango da. Ohi bezala, Kopako eta Ligako finalen artean, Herri Ametsako dantza taldea ariko da. Gainera, harmailetan elkartuko diren lagunekin eta senitartekoekin batera, Pasai Txaranga giroa alaituko du. Zorte on guztioi!

## Amara Zaharra

### Barrikotea Haritzan

Igandean, hilak 6, barrikotea egingo da Haritza elkartean, 14:00etan. Izena: Haritzan bertan eman behar da (15 euro). Menua ondo-rengoa izango da: entsalada, bakailao tortilla, salneskia, gazia, irasagarria, inbixaurak eta nahitardina sagardo.

### Amaratik Goizuetara bizikletaz

Donosti-Berri elkarrekin antolatuta, Donostia-Goizueta txirrindularitza ibilaldia egingo da larunbatean, hilak 5. Irteera 16:00etan izango da eta izena ordu bete lehenago eman behar da Osasuna kalean. Ekimenaren helburua ez da lefiatzea, ondo pasatzea baizik. Urtero egiten den moduan, Donostiara bueltatutakoan, afaria egingo da elkarrekin egoritza.



### Antzezlana prestatzen

Mamur aisaldi taldekoek ikasturte bukaerako antzezlana prestatuko dute ostiral honetan, hilak 4 eta hurrengoan, hilak 11. Gazte txoek bereak antzezlaren gaia dekoratua eta jantziak aukeratuiko dituzte, eta udako oporren aurreko azken egunean, hilak 18, obra antzeztuko dute Amara kaleko tokalean.



**F. i. CASTRO**

GAS & BEROGINTZA - ITURGINTZA  
INSTALAZIOAK, KLIMATIZAZIOA

Tel.: 943 277 085 Faxa: 943 292 665

**PARMA** hotela

Itsaso aurrean.  
Bainua, berogailua, telebista  
eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 42 80 19